



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO AZAROAREN 15EAN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palaciosek eta Josune Estella Arranzek.

**1.- 2013KO UZTAILAREN 26AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO EMANDAKO
BAIMENA BERTAN BEHERA UZTEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2013-0285

ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen MARINA LERTXUNDI andereak, Zubiaurrenea kalea 5 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu zuen 2013ko ekainaren 21ean.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko uztailaren 26an, besteak beste, zera erabaki zuen: ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen MARINA LERTXUNDI andereari, Zubiaurrenea kalea 5 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea.

Orain berriz, ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen JOKIN IARTZA ZUBIRIA administrariak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko uztailaren 26an emandako baimena bertan behera uztea eta udal baimenagatik ordaindutako 380,50 €-ko zerga eta tasa bueltatzea eskatzen du.

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkunek, ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreaki
HIRIGINTZA KONTSULTA
ZUBIAURRENEA KALEA 5-EAN IGOGAILUA JARTZEKO EXEKUZIO
PROIEKTUARI TXOSTENA

KOKAPENA: Zubiarreneka kalea 5, Usurbil
ESKAERA DATA; 2013ko ekainaren 21a
ESKATZAILEA; Zubiaurrenea kalea 5eko jabekideak.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2013-0285
AURREKON TUA: **75.000 euro**



Usurbilgo Udala

AURREKARIAK

1. 2013ko ekainaren 21ean Zubiaurrenea kalea 5eko jabekideek igogailua jartzeko udal baimena eskatu dute Udalean.
2. 2013ko uztailaren 21ean udal arkitektoak ALDEKO txostena eman zuen.
3. 2013ko uztailaren 26an Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia igogailua jartzeko baimena emanaz.
4. 2013ko abenduaren 20an baimenaren luzapen eskaera.
5. 2016ko martxoaren 3an udal arkitektoari GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO 132/2015 SENTENTZIA-ren kopia helarazi zaio.
6. 2016ko ekainaren 29an Zubiaurrenea 5 komunitateko lehendakariaren idatzia proiektu hura bertan behera uztea eskatuz.

Erlazionatuak;

7. HZ13/013-0111: Zubiaurrenea kalea 5ean igogailua jartzeko hirigintza kontsulta.
8. HZ13./2016-44: Zubiaurrenea kalea 5ean igogailua jartzeko hirigintza kontsulta.
9. HZ.04/ 2016-0264: Zubiaurrenea kalea 5ean igogailua jartzeko baimen eskaera.

TXOSTENA

Marina Lertxundi arkitektoak, Zubiaurrenea 5eko jabekideen izenean, Usurbilgo Zubiaurrenea kalea 5ean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du, horretarako Exekuzio Proiektua aurkeztearekin batean.

Aurrekarietan azaldu bezala, Jokin Iartza jaunak, Zubiaurrenea 5 komunitateko lehendakariak, Usurbilgo Udalak 2013ko uztailaren 26ko Tokiko Gobernu Batzarrean baimendu zuen Zubiaurrenea 5 kalean igogailua jartzeko proiektua bertan behera uzteko eskaera egin du Udalean. Aipatu baimena HZ.04/2013-0285 espedienteari dagokio eta eman zenetik baimenaren luzapena eskatu arren, interesatuek ez dituzte baimendutako obrak egikaritu.

Horrekin batera, behean izenpetzen duen teknikariari GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO 132/2015 SENTENTZIA helarazi zaio, non besteren artean esaten den: *“declaramos la nulidad del acuerdo (de la comunidad de propietarios) adoptado el 18 de febrero de 2013,añadiéndose a los ya indicados en la sentencia, manteniendo el resto de la misma, y desestimando lo solicitado respecto a la legitimación de la citada recurrente, todo ello sin expresa imposición de costas en ambas instancias”*. (ikus sententzia)

Bestetik, esan beharra dago, Zubiaurrenea 5 kaleko jabekideek igogailua jartzeko proposamen berri baten hirigintza kontsulta eta baimen eskaera egin dituztela Udalean (ikus HZ.13/2016-44 eta HZ.04/2016-0264 espedienteak).

Guzti hau horrela izanik, eskatzaileak helburu bera duen proiektu eta baimen eskaera berriak Udalean aurkeztu dituzenez, haiek baimentzen direnean, bertan behera uztea eskatzen den



Usurbilgo Udala

Zubiaurrenea kalea 5ean igogailua jartzeko baimena eta proiektua indargabetzea ONTZAT hartzen da.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2016ko uztailaren 6an
HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko uztailaren 26an, ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen MARINA LERTXUNDI andereari, Zubiaurrenea kalea 5 etxean igogailua jartzeko emandako udal baimena BERTAN BEHERA uztea.

BIGARRENA: Interesatuak obrak egikaritzeko asmoa izanik ere, obrak Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko 132/2015 sententziaren baitan exekutatu gabe geratu direnez, bere egunean ordaindutako zerga eta tasak (380,50 €) bueltatzeko agintzea udal kontuhartzaileari.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari ematea.

2.- ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO BAIMENA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0264

ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen MARINA LERTXUNDI MANTEROLA andereak, Zubiaurrenea kalea 5 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	119.428,36 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 674,04 €
	Fidantza (%120): 808,84 €

TXOSTEN TEKNIKOA



Usurbilgo Udala

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, 2016ko azaroaren 8an ALDEKO ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK
ZUBIAURRENEA KALEA 5AN IGOGAILUA EZARTZEKO
PROIEKTUARI TXOSTENA

KOKAPENA: Zubiaurrenea kalea 5, Usurbil.
ESKAERA DATA: 2016eko maiatzaren 31
ESKATZAILEA: Zubiaurrenea kalea 5ko jabekideak.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2016-0264
PEM OSOA: 119.428,36 euro
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 674,04euro
Fidantza (%120): 808,84euro
HOBARIA: % 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)

AURREKARIAK

- 2016eko maiatzaren 31ean Zubiaurrenea kalea 5ean igogailua jartzeko obra baimena eskatu dute jabekideek.
- 2016ko uztailaren 8an udal arkitektoak txostena idatzi zuen, honakoa esanaz (interesatuari jakinarazi zaiona):
 - TGB-K ZUBIAURRENEA KALEA 5EAN IGOGAILUA JARTZEKO EMANDAKO AURREKO BAIMENA BERTAN BEHERA UZTEA: Aurrekarietan azaldu bezala, Udalak aurrez Zubiaurrenea kalea 5ean igogailua jartzeko beste proiektu bat baimendua du, zeinak beste proposamen bat barneratzen duen. Orain, Proiektu honen memorian argi azaltzen diren arrazoiengatik (Gipuzkoako Auzitegi Probintzialaren Sententzia, jabekideen akordioa, ... e.a.) beste baimen bat eskatzen dute, proposamen berri bat egikaritzeko. Horrekin batera, (ikus HZ.04/2013-285 espediente), aurreko baimena bertan behera uzteko eskaera ere egin du interesatuak (ikus horren inguruan behean izenpetzen duen teknikariak 2016ko uztailaren 6an izenpetutako EE2016_04_032 txostena).Gauzak horrela, **baimen berri hau emateko aurreko baimena bertan behera uztea beharrezkoa ikusten da.**
 - ARGI ETA BISTEN ZORTASUNA: Behean izenpetzen duen teknikariak, interesatuak aurrez egindako hirigintza kontsultari erantzunaz emandako UA2016_HK_03 txostenean esaten zuen bezala, oroitarazten da **indarrean den 2/2006 Lurzoruaren Legearen 211. artikuluan** finkatzen duena: "**Lizentziak, beti, k jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira.**" Edonola, proiektuaren memorian esaten da: "*se ha realizado la reunión y según nos comentan están de acuerdo, tal y como lo estaban con la opción del ascensor por el patio*".
 - IRISGARRITASUN LEGEA, 68/2000 DEKRETUAREN, EKT ETA IRISGARRITASUNAREN UDAL ORDENANTZA:

Interesatuak aurrez egindako hirigintza kontsultak barneratzen zuen proposamena aurkeztu da proiektuan, aldaketa esanguratsurik gabe. Proiektuan indarrean den araudiarekiko honako salbuespenak daude;

 - 68/2000 Dekretuak igogailuaren ontziratze guneetan inskribatu beharreko 1.4 m-ko diametroan zirkunferentzia murriztea.



Usurbilgo Udala

- Eskailera tramuen 91 cm-ko zabalera murrizketa (EKT DBSUA1-4.2.2 1,0m ezartzen duenean eta Udal Ordenantzak neurri gehigarriak eskatzen).
- Goiko solairuetan, patioan ezarri den 85 cm-ko zabalera radun pasillo /korridore berria (EKT-k 1,00m-ko zabalera finkatzen duenean, salbuespenerako baldintzak izanik).

Proiektuaren memorian murrizketa/salbuespen hauek oso modu azalekoan justifikatzen dira araudia betetzeko egungo eraikinean aldaketa fisikoak egitea ekonomikoki ez dela bideragarria esanaz (“*se tendría que ocupar parte de los baños y se anularían las ventanas de los baños*”, “*el ampliar ese pasillo obligaría a modificar las bajantes generales de los baños de las viviendas, pasándolos al otro lado de la ventana, obligando a la modificación de la distribución de todos los baños, siendo una actuación económicamente inviable*”), baina ez da bideragarritasun eza argudiatzen duen dokumentazio zehatzik, baloraziorik edota azterketarik aurkeztu. Behean izenpetzen duen teknikariaren ustez, **murrizketa hauek erabiltzaileen segurtasunari zuzenean eragiten dioten heinean (batipat suteen kasuan hustuketa bideei), ezinbestekoa da araudia betetzeko ezintasuna zehatz aztertu eta baloratzea. Salbuespenak egiteko, araudia betetzea desproporzionatua dela arrazoitzen duen balorazioa eta dokumentazioa aurkeztu beharko litzateke, baldin eta bideragarritasun ekonomiko eza bada justifikazioa. Orain artean aurkeztutakoaren arabera, ez legoke ezintasun fisiko/teknikorik.**

Horrekin batera, ez dira hartu beharreko neurri konpentsatzaileak/segurtasun neurriak zehatz dokumentatu. **Baldin eta salbuespenak egingo badira, dagozkien neurri konpentsatzaileei dagokion dokumentazio zehatza eta justifikatua aurkeztu beharko da, EKT-k I Zatia I kapitulua 2.3. artikuluan esaten duenari jarraituz.**

- 2016ko uztailaren 15ean interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu zeun.
- 2016ko urriaren 24ena interesatuak dokumentazio gehigarria aurkeztu du.

Erlazionatuak:

HZ.13/2016-044: ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO AUKERAZ GALDERA URBANISTIKOA

- 2016ko otsailaren 2an Zubiaurrenea kalea 5ean igogailua jartzeko proposamena aurkeztu zen hirigintza kontsultarako.
- 2016ko martxoaren 3an udal arkitektoak UA2016_HK_03 txostena idatzi zion, 2016ko martxoaren 17an jakinarazi zena, honakoa ondorioztatuz:
“(…), aurkeztu proposamena bideragarria izan liteke, aipatu murrizketa/salbuespenak justifikatzen diren artean. Edonola, eskuhartzeak eraikinaren hustuketa bideen egungo neurrietan eragiten duenez, suteen aurkako babeserako neurri konpentsatzaileak ezarri beharko dira.”

HZ.04/2013-285: Zubiaurrenea kalea 5 etxean igogailua jartzeko udal baimena.

- 2014ko uztailaren 26an Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia baimena emanaz.
- 2016ko ekainaren 29an interesatuaren eskaera baimena bertan behera uzteko.

HZ.13/2013-0111: Zubiaurrenea kalea 5ean igogailua jartzeko aukeraz galdera urbanistikoa.

- 2013ko apirilaren 24an Alkatetzaren 2013/0418 Dekretua galdera erantzunaz.

TXOSTENA

Marina Lertxundi Manterola andereak, Zubiaurrenea kalea 5eko jabekideen izenean, Zubiaurrenea kalea 5ean igogailua jartzeko



Usurbilgo Udala


proiektu berriari dokumentazio osagarriak aurkeztu dizkio Udalean, dagokion obra baimena eskatuz. Aurkeztu den dokumentazioa da:

- 2016-07-15: Neurri murrizketen justifikazioa, araudiaren betetzea bideragarritasun eza eta neurri konpentsatzaileen justifikazioa.
- 2016-10: goi solairuetako korridorearen handitze proposamena, larrialdietarako kasuetan erabilgarria izan dadin.

Aurreko txostenean jaso bezala, aurkeztutako proiektuan eta haren dokumentazio osagarrietan igogailua ezartzea proposatzen da, barne kabinaren neurriak 90x120 cm, ateak 90 cm zabaleradunak eta ontziratze bikoitzekoa (180º-ra) izanik. Igogailu hau behe solairuan albo lokala eragin gabe ezartzen da, horretarako beharrezkoa izanik solairuan 91 cm-ko zabalera duen eskaiera tramu berria eta %12 maldadun arrapala berria eraikitzea. Goi solairuetan igogailua inguratuko eta patioa eragingo duen pasabidea ezartzen da, 85 cm-ko zabalera duena. Proiektuak barneratzen duen proposamen hau bat dator, aldaketa esanguratsurik gabe, aurrez interesatuak egindako hirigintza kontsultako proosamenarekin (HZ13/2016-044), zein Udalak ontzat eman zuen baldintzekin (ikus behean izenpetzen duen teknikariaren UA2016_HK_03 txostena). Gainera, araudia betetzen ez den puntuetan arkitektoaren berariazko justifikazio aurkeztu da eta baita neurri konpentsatzaileak ere. Edonola, behean izenpetzen duen teknikariak aurreko txostenetan esandakoak berresten ditu.

Beraz, orohar, dokumentazio guztia aztertuta, honakoa esan daiteke:

- TGB-K ZUBIAURRENA KALEA 5EAN IGOGAILUA JARTZEKO EMANDAKO AURREKO BAIMENA BERTAN BEHERA UZTEA: Aurrekarietan azaldu bezala, Udalak aurrez Zubiaurrena kalea 5ean igogailua jartzeko beste proiektu bat baimendua du, zeinak beste proposamen bat barneratzen duen. Orain, Proiektu honen memorian argi azaltzen diren arrazoiengatik (Gipuzkoako Auzitegi Probintzialaren Sententzia, jabekideen akordioa, ... e.a.) beste baimen bat eskatzen dute, proposamen berri bat egikaritzeko. Horrekin batera, (ikus HZ.04/2013-285 espediente), aurreko baimena bertan behera uzteko eskaera ere egin du interesatuak (ikus horren inguruan behean izenpetzen duen teknikariak 2016ko uztailaren 6an izenpetutako EE2016_04_032 txostena).Gauzak horrela, **baimen berri hau emateko aurreko baimena bertan behera uztea beharrezkoa ikusten da.**
- ARGI ETA BISTEN ZORTASUNA: Behean izenpetzen duen teknikariak, interesatuak aurrez egindako hirigintza kontsultari erantzunaz emandako UA2016_HK_03 txostenean esaten zuen bezala, oroitarazten da **indarrean den 2/2006 Lurzoruaren Legearen 211. artikuluan** finkatzen duena: **“Lizentziak, beti,k jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira.”**



Usurbilgo Udala

- IRISGARRITASUN LEGEA, 68/2000 DEKRETUAREN, EKT ETA IRISGARRITASUNAREN UDAL ORDENANTZA:

Indarrean diren araudiekiko honako salbuespenak ikusi dira proposamenean;

- 68/2000 Dekretuak igogailuaren ontziratze guneetan inskribatu beharreko 1.4 m-ko diametrodun zirkunferentzia murriztea.
- Eskailera tramuen 91 cm-ko zabalerara murrizketa (EKT DBSUA1-4.2.2 1,0m ezartzen duenean).
- Goiko solairuetan, patioan ezarri den 90 cm-ko zabaleradun pasillo /korridore berria, komunen aurreko leihoetan 98 cm-etara zabaltzen dena eta komunikazio nukleotik korridore berrira 85 cm-ko zabaleradun pasua.

Araudia betetzen ez den puntu hauen inguruan, beste aukeren bideragarritasun eza ziurtatzen duen berriazko justifikazioa aurkeztu da eta baita neurri konpentsatzaileak ere.

Hau horrela izanik, onargarria izan liteke proposamena, **beti ere obren egikaritzan neurri horiek mantentzen badira eta ahal den neurrian, posible ikusiko balitz, araudiak ezarritako gutxienez gehiago hurbiltzea edo betetzea gomendatuz. Neurri konpentsatzaileak ezinbestean ezarri beharko dira.**

Edonola, guzti hau proiektuaren erredaktatzailearen erantzukizunaren baitan, EKT-ren lehen ataleko 2. artikulua ezarritakoaren arabera:

Código Técnico de la Edificación, Parte I, capítulo1, artículo 2.

ámbito de aplicación:

“Cuando la aplicación del Código Técnico de la Edificación no sea urbanística, técnica o económicamente viable o, en su caso, sea incompatible con la naturaleza de la intervención o con el grado de protección del edificio, se podrán aplicar, bajo el criterio y responsabilidad del proyectista o, en su caso, del técnico que suscriba la memoria, aquellas soluciones que permitan el mayor grado posible de adecuación efectiva. La posible inviabilidad o incompatibilidad de aplicación o las limitaciones derivadas de razones técnicas, económicas o urbanísticas se justificarán en el proyecto o en la memoria, según corresponda, y Código Técnico de la Edificación Parte I 4 bajo la responsabilidad y el criterio respectivo del proyectista o del técnico competente que suscriba la memoria. En la documentación final de la obra deberá quedar constancia del nivel de prestación alcanzado y de los condicionantes de uso y mantenimiento del edificio, si existen, que puedan ser necesarios como consecuencia del grado final de adecuación efectiva alcanzado y que deban ser tenidos en cuenta por los propietarios y usuarios.”

- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANAREN AURREKONTUA ETA FIDANTZA: Aurrekontuan Hondekinen Kudeaketa partida finkatu da 674,04euro€-koa. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, **aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin**



Usurbilgo Udala

batean (808,84€). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

- OBRA BAIMENA ETA OBRA BAIMENAREN EPEAK; Baimenaren epeak izango dira:
 - Obrak hasteko gehiengo epea: 6 hilabete
 - Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 6 hilabete.
 - Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.
- HOBARI APLIKAGARRIAK: Indarrean diren Ordenantza Fiskalen VII. Ataleko 11.b artikulua araberako %90 -ko hobaria dagokio obra baimen honi.

ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraituz, aurkeztu proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio, beti ere honako baldintza hauen pean:

- Obra baimen hau emateko ezinbestean, aurreko baimena (Tokiko Gobernu Batzordeak 2014ko uztailaren 26an Zubiaurrenea 5ean igogailua jartzeko emandako baimena) bertan behera uztea beharrezkoa ikusten da.
- Orohar, irisgarritasun araudiak eta EKT-k ezarritako neurriak bete beharko dira, bereziki:
 - Igogailuaren instalakuntzak EKT eta dagokion araudiak ezarritako baldintzak bete beharko ditu.
 - igogailuaren kabinak gutxienez 90x120cm-ko neurriak.
 - Igogailuaren ateak 80 cm-ko pasabide librekoa.
 - Kanpotik igogailurainoko koskak kenduko dira.
 - Igogailuak etxebizitzak dauden solairu guztiei emango die zerbitzua.
 - EKT-ek ezarritako eskubarandak jarri beharko dira.
 - EKT betetzea posible ez den puntuetan, aurkeztu den proiektua eta dokumentazio osagarrian jasotako neurriak bete beharko dira ezinbestean eta zentzu horretan obra baimenak ez du haiekiko murrizketarik ahalbidetzen.
 - EKT betetzea posible ez den puntuetan, aurkeztu den proiektua eta dokumentazio osagarrian jasotako neurri konpentsatzaileak bete beharko dira ezinbestean.
- Proiektuaren erredaktatzaileari dagokion erantzukizunaren inguruan, bereziki araudia betetzen ez den puntuetan, ohartarazten da, Eraikuntzaren Kode TEknikoaren 1 Zatik 1. Atalaren 2. Artikulua, “ámbito de aplicación”-en 3. Puntua.
- Ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua.
- Obra baimena jaso ostean, 15 EGUNEKO EPEAN eta edonola, falta diren obrak hasi aurretik Hondakinen Kudeaketari dagokion fidantza ezarri beharko da (808,84euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu



Usurbilgo Udala

beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

- Edonola, aplikaziozkoa den araudia bete beharko da.
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
 - o Obrak hasteko gehiengo epea: 6 hilabete
 - o Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 3 hilabete.
 - o Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.
- Baimendutako salbuespenaren berri Eusko Jaurlaritzako Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari eman beharko dio Udalak (Irisgarritasunari buruzko 68/2000 Dekretua, V. Eranskina, 3.3. artikulua).
- Ohartarazten da, indarrean den 2/2006 Lurzoruaren Legearen 211. artikuluan finkatzen duena: "*Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira.*"

Hau da behean izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako besteren kalterik gabe.

Udalari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2016ko azaroaren 8an

UDAL ARKITEKTOA

HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA

Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: ZUBIAURRENEA KALEA 5 ETXEKO JABEKIDEEN ordezkaritzan diharduen MARINA LERTXUNDI andereari, Zubiaurrenea kalea 5 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
 - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 674,04 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (808,84 euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

808,84 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2016-0264*" jarriaz kontzeptuan.



Usurbilgo Udala

- Marin Lertxundi arkitektoak 2016ko maiatzean idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak beren txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Orohar, irisgarritasun araudiak eta EKT-k ezarritako neurriak bete beharko dira, bereziki:
 - Igogailuaren instalakuntzak EKT eta dagokion araudiak ezarritako baldintzak bete beharko ditu.
 - igogailuaren kabinak gutxieneko 90x120cm-ko neurriak.
 - Igogailuaren ateak 80 cm-ko pasabide librea.
 - Kanpotik igogailurainoko koskak kenduko dira.
 - Igogailuak etxebizitzak dauden solairu guztiei emango die zerbitzua.
 - EKT-ek ezarritako eskubarandak jarri beharko dira.
 - EKT betetzea posible ez den puntuetan, aurkeztu den proiektua eta dokumentazio osagarrian jasotako neurriak bete beharko dira ezinbestean eta zentzu horretan obra baimenak ez du haiekiko murrizketarik ahalbidetzen.
 - EKT betetzea posible ez den puntuetan, aurkeztu den proiektua eta dokumentazio osagarrian jasotako neurri konpentsatzaileak bete beharko dira ezinbestean.
- Proiektuaren erredaktatzaileari dagokion erantzukizunaren inguruan, bereziki araudia betetzen ez den puntuetan, ohartarazten da, Eraikuntzaren Kode TEknikoaren 1 Zatiko 1. Atalaren 2. Artikulua, “ámbito de aplicación”-en 3. Puntua.
- Ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua.
- Edonola, aplikaziozkoa den araudia bete beharko da.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obrak hasteko gehiengo epea: 6 hilabete
 - Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 3 hilabete.
 - Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:



Usurbilgo Udala

- Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
- Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigitaturik eta Kolegioan bisaturik.


- Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 zm.takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.
 - Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
 - Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak igogailua funtzionamenduan jartzeko baimen ziurtagiria.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Baimendutako salbuespenaren berri Eusko Jaurlaritzako Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari emango zaio (Irisgarritasunari buruzko 68/2000 Dekretua, V. Eranskina, 3.3. artikulua).

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.